

LAZKAO ▶ KIROLA



Joxemari Kerejeta Pala Txapelketako finalistak, antolatzaileekin batera. JOXEMARI KEREJETA PILOTA TXAPELKETA

Berasategi eta Aierdi nagusitu dira Joxemari Kerejeta Txapelketan

30 eta 27ko emaitzaz menderatu zituzten Andonegitarrak; finaleko pilotari onenaren saria Azeari Andonegik jaso zuen

ARKAITZ APALATEGI

Joan den asteburuan jokatu zen Lazkaon Joxemari Kerejeta Pala Txapelketako azken txanapa. Azkenean Berasategi eta Aierdi pilotariak nagusitu ziren igande eguerdiko final handian.

Neurketa bizi eta orekatua jokatu zuten finalistek. Andonegi aita-semeak ondo hasi baziren ere, Berasategi eta Aierdik markagailuari buelta eman eta partida irabaztea lortu zuten. Azken emaitza 30 eta 27koa izan zen, Berasategi eta

Aierdiren alde. Antolatzaileen esanetan, «azken emaitzak adierazten duen bezala, lehia handia izan genuen pilotalekuan, eta bertaraturakoek tanto ederrak ikusi eta txalotzeko aukera izan zuten».

Hirugarren eta laugarren postuak erabakitzeke neurketan Garrido eta Tobarrek lortu zuten garaipena. Laugarren gelditu zen Irizar eta Berasategi osatutako bikotea. Finaleko pilotari onenaren saria Azeari Andonegik eskuratu zuen.

Sariak banatu ostean hamaitketakoa egin zuten pilotari, an-

SAILKAPENA ▶

TXAPELKETAKO FINALAK

1. Berasategi/Aierdi
2. Andonegi/Andonegi
3. Garrido/Tobar
4. Irizar/Berasategi

tolatzaile eta ikusleen artean. Kerejetaren omenezko lehiaketaren antolatzaileek igandean bizi izandako «giro ederra» azpimarratu dute, eta txapelketa antolatzen lagundu dutenei esker ona agertu nahi izan diete.

GUTUN@K ▶

Oiangu publikoa eta bizirik!

Martxoaz geroztik, Oiangu Publikoa eta Bizirik plataformak ordiziar askoren babes eta laguntzarekin, hainbat ekintza burutu ditu Ordiziako Udalak onartutako Oiangu Aisigunea egitasmoaren aurka: sinadurak bildu; komunikabide, kartel eta hitzaldien bidez informazioa zabaldu; Oiangu Eguna ospatu; harremanak izan Arartekoarekin, alderdi politikoekin, Goiekirekin, ikastetxeekin... Eta ekintza horiek guztiek beren emaitza izan dute. Izan ere, Ikena enpresak, Udalaren laguntzarekin, baina Foru Aldundiak onartu beharreko Plan Berezirik gabe, hainbat obra egiteko asmoa zuen (golf praktiketarako eta paintball delakorako lur eremuak itxi eta egokitu, jatetxea handitu...). Obra horiek, ordea, ez dira burutu.

Esan behar da Oiangu 40 urtez Ikena enpresaren esku uzteko erabakia hartzeko prozesuan hainbat hutsune legal eman direla: kontratuaren helburua ilun eta zehaztugabea izan da, Foru Aldundiak Plan Berezia onartu aurretik obrak burutzeko asmoa zuten, kontzesioa bera geroago osatu nahi zen beste enpresa bati emateko asmoa zuten beharrezko baldintza legalak bete gabe... Legezko hutsegite horiek direla eta, adjudikazioa bertan behera uzteko eskatuz maiatzaren 11n Udalean errepizio helegitea delakoa aurkeztu genuen 3.000 sinaduren babesarekin.

Helegite hori aurkeztu aurretik, Oianguko espedientearen den informazio osoa eskuratzeko Udalaren baimena izan dugu, baina helegitea sartu ondoren informazioa

ukatu egin zaigu, ez gairela parte «interesatua» esanez. Informazio publikoa horrela ezkatutzea eta herritarrak parte interesatuzat ez jotzea oso larria iruditzen zaigu.

Hilabete pasa ondoren, eta helegitearen erantzunik ez dugunez jaso, plataforma honek Ordiziako Udalar eskatu dio bertan behera utz dezala Oiangu kontzesioa Administrazio Publikoaren Erregimen Juridikoak adierazten duena jarraituz. Hala egin beharrean, ordea, uztailaren 21 ean goizeko 10etan ospatutako Osoko Bilkuran, gehiengo absolutuz erabaki dute helegitearen tramitea bera ere ez onartzea (hau da, eztabaidatu ere ez egitea), esan bezala, haien ustez ez baikara egitasmo honetan parte «interesatua».

Idatzi honekin ordiziar orori jakinarazi nahi diegu plataforma honek Oianguko egitasmoa gelditzeko ekimenak burutzen jarraituko duela, eskura ditugun baliabide baketsu eta legal guztiak erabiliz. Horrexegatik, herritarrak animatu nahi ditugu ekimen horietan parte har dezaten, bai sinadura emanaz, bai ekonomikoki laguntzeko bonoak erosiz, eta baita irailatik aurrera antolatuko ditugun ekimenetan parte hartuz ere.

Igaro ditzazueta festa eta uda zoriontsuak.

EDURNE HUESA OTEGI ▶

OIANGU PUBLIKOIA ETA
BIZIRIK PLATAFORMA (ORDIZIA)

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Kamarera behar da astelehenetik ostiralera eguerdian, abuzturako. 943 88 92 52.

Guztia hutsaren truke

Orain **0€***-ren truke eskuratu LG 2300, Motorola V547 edo Samsung X640 bat.

Eta gainera... **Hitz egin doan abendura arte****

* Leihoren eta Hautaketaren bezeroentzako, ondoren ordaintzeko aukeratik ordaintzekora pasatutako bezeroentzako eta etxeko telefonia mugikorreko operadore nazional baten etorrita aita eman duten bezeroentzako mugikoraren PSPa, betiere 2005/09/31 baino lehen kontratatzen badu ondoren ordaintzeko etxeko zerbitzua 6 €ko kontsumo minimoarekin, eta 18 hilabetez irauteko konpromisoa hartzen badu. Muga: 7.000 unitate.

** Sustapen horiek 2005/09/31ra arte balio du. Estatuko detak Euskaltel/Amnaren mugikorretara 0 €/min-ren truke, 2005eko abenduaren 23ra arte. Alta-kuota: 6 €. Fakturazio-ziklo bakoitzeko muga: 2.000 minutu. Delaren ezartze-kostua sartu gabe, Sustapen hau ez da balagarria beste sustapen hauekin: Nire Gogokoena, 5 a 5 zerbitzua, 3x2 kontratua, Duo Kodratu Libre eta 3 zent./min tarifarekin ditzeko sustapenak (sustapen horiek behin betiko galduko lirateke). Galdetu sustapen honen baldintzei buruzko informazioa saltokietan edo 900 840 840 telefono-zenbakian.

Avda. de Navarra, 25
Beasain
Tel.: 943027402

Labeaga, 72
Urretxu
Tel.: 943532510